



EUSKALTZAINDI
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE
Ribera, 6 - Teléfono 12745
BILBAO

Bilbon 1.957-VIII-21

Pierre Lafitte jauna
USTARITZ

Ene jaun agurgarria:

Etsita egongo zara, noski, esperuan. Baiña azkenik gaztigaratu didate ongi atera dela eta biardu dizutela Bonaparte-ren fotografia. Izen ere, fotografia etxean bi egin zituzten leen, baiña gaizki atera eta balio ez. Oraingoa nik ez dut ikusi, baiña ala ere uste dut ongi egongo dela igorri dizutenean. Ta ba Museoan ipinteko gauza den.

Euskera-n argitaratuko dira Duvoisin eta Intxaurpe-k Bonaparteri zuzendu zizkioten kartak eta orrela gure emaitze izengo duzute.

Arek zituen eskuzko izkribuak emango lau diputaziõek erosi zituzten. Nik neuk ez dut egin ezer Bizkaiko Diputaziõen degoenaren gainean, uste baitut zuzenean egin izango zendutela eta igorriko zitutela dutenaren lista osoa.

Eskuzko izkribu guzti orlek Azkuren eragilez erosi ziren. Ain zuzen ere, Tours-era joan zelarik bere iztegi nagusia inprimatzen, jira bat egin zuen Londres-etik izkribu aiei begirada bat emateko asmotan, eta jakin zuen nola andik laster Chicago-ra bidea artuko zuten, Printzearen bibliotekak artu zuen bezala. Eta orduan, Londres-en Espainiako Enbajadore zegoan Duque de Mandas-en bidez Gipuzkoako Diputaziõora zuzendu zen, eta ortik etorri zen gainetako guztia. Jaun Enbajadore au giputza zen, Gipuzkoako batzarretan (batzarrek zudenean alegia) parte artutakoa. Gipuzkoako batzarretan Donostiko ordezkari zelarik, beste gauza batzuen artean literaturazko konkurreo baten asmoa azaldu zuen gipuzkerare San Juan-en evangelioa itzultzeko.

Besterik gabe zure esanera gelditzen naiz.

José de Ustaritz

EUSKALTZAINDI
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
Teléfono 9723

BEIN-BEINEKO ETXEA
Domicilio provisional: Ribera, núm. 5
Ufuntziak 9723
BILBAO

Bilbo-311-28

Pièrres Lafitte Jaun apezkide maitea: Euskaltzaindi onen azken-batzarètan, Lacombe gure adiskide ta lankideak zure lantxo polit bat irakurri zigun eta atsegifiaz entzun genion. Lacombek berak Darikarere euskaltzain-urgazlearen il-beria eman zigun eta Euskaltzaindiak, atsekabea erakutsi-ondoren, utsune ori betetzea erabaki zuen. Zure oraingo lan ori eta lendik egin dituzunak aurrean ditugula, utsune ori betetzeko zerori aukeratu zaitugu. Beraz orainarte Euskeraren alde egin dituzun lanen eskeiz, erakutsiz eta aurrerantzean ere lan ori gogoz ekinen diozulakoan Euskaltzaindi onen urgazletzat zure izena artzen dugu.

Guzion izenean agur egiten dizu

Euskaltzainburuak

R. M. Azkue

Bilbo-23-11-28

EUSKALTZAINBURUGOA
DIRECCIÓN DE LA ACADEMIA DE LENGUA VASCA
Teléfono 9723

Piarres Lafitte euskaltzain-uzgarde eta aper-
kide Jauna Nostanitz

BEIN-BEINEKO ETXEA
Domicilio provisional: Ribera, núm. 5
Ufuzizkifia 9723
BILBAO

Euskaltzainde onek aspaldi erabaki bat
artu zuan eta oraindik erabaki orri inork
estiu asimistik eman. Erabaki orri auzerari:
"Literatura griega eta latina-tik zati egokien batak euskera-
ra bihurtzea" Zuan orri norbaitrek egin bear due baina orkue
jaunak idazle baten artean banatzen espardu neork estiu-ekin,
eta berazatik idazle batak begir jo ditu. Idazle oyon artean
serosi bera bat. Ederki idartzen duzula ikusi du eta lan orri
ekin duzula uste du. Ontarako zati batak serosik ake-
tatu beorko dituan eta aukeratzen dituzunak serosik ditan
esan beorko diguan, ruk egiten duzuna besteren batek alperik
egin esteran.

Ruk egintz serosik lana prantzen eta euskera
azortuko litzake, auzerengoz gure "Euskera" n eta goro guten
beresien. Esan beorik esta, juri an orkue jaunoren izenean
idartzen ditudala.

Rure erantzenen sai gelditzen da hister lenengoz agutzen
raituan an

Gregorio Meaidagan

+

EUSKALTZAINBURUGOA
DIRECCIÓN DE LA ACADEMIA DE LENGUA VASCA
Teléfono 9723

BEIN-BEINEKO ETXEA
Domicilio provisional: Ribera, núm. 3
Ufuztzkifia 9723
BILBAO

Bilbo-I-III-28.

Piarres Lafitte Jauna.

Toulouse.

Ene aphezkiide maitea: Nere aginduz gure zadorlariak egin zizun galdeari erantzunaz idatzi didazun eskutitza atsegin aundiz irakurri dut.

Duskerara itzultzeko aukeratu dituzun zatiak, egokiak deritzeaizkit eta zuk dezun idazkera ulert-erenezan argitaratu eskero atseginez irakuriko dirala uste dut. Aurenez gure Duskeran eta gero gutun berezian azalduko dira. Zerorrek ederki diozunez itzulpen oiek ulert-erenezak izan bear dute, bestela euskereari indarra eman bearnean kalte aundia egiten diote.

Ikusten dezan ez zuz ere lanpetua zaude eta itzulpen oiek noizko eginen dituzun ezin esan dezakezula diozu. Lan oiek al dezunean egin beariko, baina len bai len oba.

¿ Noiz alkar ezagutuko degu ? Bitartean biotzez agurtzen zaitu

Orkua apirak

EUSKALTZAINDI
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Teléfono 12745

BEIN-BEINEKO ETXEA

Domicilio provisional: Ribera, núm. 5

Ufuzizkiña 12745

BILBAO

Agurak

Bilbo 12-XII-33.

Pierre Lafitte Jauna
Hatorre

Apaizkide maitia: Auzirerik askue
famoren iruman agur bat zuzentzen dirudite,
bere oro lampetua delako bere iruman idartzen dirudite.
Ernuzo Garo abizeneko jaun bat, Barbier famoren ipui-
ak birkaierar eguneko "Euskadi"-n argitaratzen ari da
eta itz auek "Beroien birkaia, er bertzea" zer esan
nai duen er onudaki eta eta askue jankere eta
zeronek jakingo derulakoan galde epten dugu. Beroien
itz ori i zer da? jotoi/ erantzen saru.

Askue jank janki zuen udan Eskitum, bere
etxean egun sinatu, baiña bere etzan. Berik agurtuko
sinduan eta beriz etortzen bazera, orduan iran beorki
bere ere ortik reaz isatur bode gorik agurtuko omen
saitu.

Beririk gabe, agur epinuz zuzen sai zelaiten da
apaizkide eta zuzituen dugu
Frueris Maidegar

EUSKALTZAINDIA

ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

DELEGACION DE GUIPUZCOA
PALACIO DE LA DIPUTACION PROVINCIAL
SAN SEBASTIAN


Donostia'n Maiatzak 8 .

Laffitte jaun agurgarria : Agur bero
batekifi eskari txiki bat :

L.Dassance'ren "Herrien eta Herritarren izenak eskuarez" iru ale nai nituzke.
Mesedez urrengo batzarrerera ekarriko ba'zenizkida, biotz biotzez eskerrak
emango nizkizuke . Eta emen bertan ordaindu dizkitzut .

Ba'dakizu zerbaitan laguntzekorik nere
baitan izan ezkeru .. ementxe daukazula zure srbitzaria .

Agur ba ta urren arte . Jaunagan .



Pedro Berrondo



EUSKALTZAINDIA

ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Ribera, 6 - Teléfono 21 27 45

BILBAO

Bilbon 1966-XI-30
Pierre Lafitte jama
Ustaritz

Adi, ki dea: Eman nizkion "Le fran Enciclopedia Vasca"-ko zuzendarian Haritzchelhar, Carzabal eta zure lauruen lana pezeta. Jutsuago zan ezker (360 pta.) esan zidan sobra gelditzen zama ala apuntatuko zuela. Jakinaran gainean jarri men nola lendariziko ale biak bagenituen.

Eskerrikoz nizkizue bialduko bagenizkit Etchamendi, Etxeberri eta Idiat-en zuzenbideak, laguntzaille izendatuko izan baitira.

Bistza } Ojizzen

EUSKALTZAIN DIA

ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

DELEGACION DE GUIPUZCOA
PALACIO DE LA DIPUTACION PROVINCIAL
SAN SEBASTIAN

, 1.971 - 10 - 30

Agur jauna:

Bederatzigarren listarekin batera, lehendabiziko lista bidaltzen dizugu.

Lehendabiziko listari eman zenizkoten erantzunak bil eta gure ustetan gisakoenak zirenak aukeratu genituen. - Zuenekin batera guk aukeratutakoak Koldo Mitxelena jaunari - pasa genizkion, ikus zitzan. Lista osoa ikusi zuen, zenbait nota edo ohar ifini ere bai. Presentean, 2-3-4-5garren listak jaun horren berorren eskuetan daude.

Lehendabiziko lista hau eskuratuko duzumean beraz, zuk berriz ikustea nahiko genduke. Ikus eta behar diren orraz tapen guztiak egin. Bilduko ditugun ohar guzti horiek, berriro ere Mitx. jaunari pasako dizkiogu. Gero, Euskaltzaindiari igorriko dizkiogu, azken hitza eman dezan.

Beste lista guztiekin ere honelaxe jokatuko dugu. Honela, zertan garen, badakikezu.

Gure lana gitzina doa. Lot lanari, zenbait hilabete teren buruan Euskal Herriari lan operoa eman dizaiogun.

Denon izenean, bihotzaz agurtzen zaitut,

Salvador Jarama



EUSKALTZAINDIA

ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

Ribera, 6 - Teléfono 21 27 45

BILBAO - 5

Donibane Lohizuneko alkate jaun agurgarria

Jaun-andreak:

Loriaturik da egun Euskaltzaindia, Lapurdi zaharreko hiri bizkor langile hunetan bere bilkura egitean.

Euskaltzaindiak ezin du ahantzi Lapurdiko eskualdea, eta bereziki ezin du ahantzi euskara zaharraren baratzea lantzen, Donibane izan zela aitzindari, bide urratzaile eta langile goiztiar.

Bertrand d'Echaz apezpikuak Donibane eta Ziburu bitartean Asis-ko semeen etxe-komentua ezarri zuen. Eta itxuren arabera, handik ilki zen euskara zaharra lantzeko asmua XVII. mendeko aitzinaldean. Eta gizon mordoska --fraide, apez, midiku eta holako-- lanari lotu ziren, eta liburu gogoangarriak eman zizkiguten. Ezin ahantzizkoak dira guretzat jaun haien izenak: Materre, Etxeberri, Axular, Haranburu, Argaignarats, Aranbillaga, Harizmendi. Eta pixka bat geroago, Gazteluzar, Silvain Pouvreau (Bidarten apez egondako frantses euskaldundua), eta abar.

Gaur-eguneon ere Donibanek badu seme presturik, izar distirantik, euskal letren zeruan. Guztion gogoan eta bihotzean da Iratzeder, Belokeko Aita Abadearen izena.

Ordea, letrak ongi daude. Baina mintzaira, letra bihurtu baino lehen, ezpainenetan ekarria izaiteko egina da. Euskal landare bizia ez dadila

ihar gure egumetan gizaldi berrietan: hori da gu guztion arrangura eta kezka. Gure kezka hauek zureak ere badirela, ongi dakigu.

Euskaltzaindiaren bilkura, Udako euskal Unibersidadea eta beste erakunde, antolamendu eta lanek ekar bezate, ondorio bezala, euskeraganako amodio eta konzientziaren iratzartze bat, euskal estudioen aitzinamendua eta mintzaira honen pizberritze bat Lapurdiko semeetan: hori da gure ametsa.

Eta mila esker, jauna, Donibaneko herriko etxe hunetan Euskaltzaindiari egin diozun harrera ezin hobegatik.

Fr. Luis Villasante, ofm
Euskaltzaindiko zuzendaria

EUSKALTZAINDIA

Ribera, 6 - Teléfono 21 27 45
BILBAO - 5

BARRENGO LAN ETA HAR-EMANAK Noiz 1976-VI-16.
Nork Idazkariak Nori J.L. Davant-i
Zertuz Amnistia eskariak


Euskaltzainkide jauna:

Maiatzeko batzarrean huu tratatu zen, agirian ikus dezakezun bezala: "Gipuzkoako Amnistiaren Elkarteak erreferi egin dion eskariaren berri ematen digu, era berean Euskaltzaindiak ere amnistia eskaria egin dezan. Gai hau ezta Euskaltzaindiaren helburuetakoa, baina zenbait iritziz jaso ondorean euskaltzain oso guzietan galdetza idaztea erabaki da."

Beraz, ongi derizkiozu amnistia eskaria egitea? Zure irizpidea ager zazu idazkiz, ekaineko batzarrean joaterik ez baduzu; edo zure bozaren ahala joango den euskaltzain osoren bati idazkiz eman.

Besterik gabe, bihotzez agurtzen zaitu, zure zerbitzari den

IDAZKARIAK,


Jkus otoi atzean →

Haritschelhar eta Lafite jaun Euskalzainen bitartez:

Bai, egoki deritzait Euskalzaindiak jaun Erregeari amnistiaaren eskatzea.

Zer gatik? Zeren euskara gatik egin dituzten urats batuen ondorioz gartzelatuak izan ziren gaur amnistia baten beharretan daudenak.

Euskaldunen artean bakea ekan ezake Jaun Erregearen erabaki horrek.

Euskalzaindiari dago eskariaren bere hitzez jostea.

J. D. A. G.
—4—